

## NOR ZEN MGR SAINT PIERRE

*Milafranga, 1984-VI-24*

*Piarres Lafitte*

Egun ospatzen dugun euskaltzale handiak ere idazlanetan hiru izen erabili ditu: *Jean Saint Pierre*, *Joastipi Etxeleku* eta *Antxuberro*.

Milafranga *Etxelekuan* bizi ziren *Jean Saint Pierre* eta *Catherine Antxuberro* senar-emazteak. Laborariak ziren. Izan zituzten bederlatzi haur: lau alaba eta bortz seme. Egun omendatzen duguna zortzigarrena zen. Sortu zen 1884 eko martxoaren 28 an, duela beraz ehun urte. Herriko etxean aitaren izen deiturak eman ziozkaten: *Jean Saint Pierre*. Bainan etxen euskaraz *Joastipi* deitzen zuten edo laburkiago *Papiti*.

Muttiko erne eta hartze onekoa atera zen. Bere lehen eskolak aitasorekin egin zituen, ezen aitaso horrek zahartu-eta ere, zerbaitetako on izan nahiz, auzoko haurrak biltzen zituen, katiximarekin batean erakasten ziotela euskaraz irakurtzen eta izkiriatzen.

Geroxago Marty izeneko bikarioak Joastipiri erakatsiko zion frantses eta latin poxi bat. Schlegel jaun erretorak beretter hartu zuen eta haurrak salatu zion apeztu nahi zuela.

Etxekoak ez ziren batere harritu: jadanik seme zaharrenetarik bat trapista edo beneditano xurietan sartua zitzaioten eta alaba bat Afrikako serora xurietan: hau ondoko urtetan bere kongregazione guziko lehen buru hautatua izan baitzen, ez zitaken nor nahi.

Zer nahi den, Joastipi Larresoroko semenario ttipirat igorri zuten, bortzgarrenetik hasteko, 12 urtetan. Milafrangako larretan libro ibiltzen usatua, lanak ukan zituen ezin etxekotuz. Kaperan ixil egoitea onartzen zuen, baina ezin jasan zezaken eskolan, lotegian, jateko lekuan mintzatu gabe egoitea. Letzionen ikasteko, beharriak tapaturik, etxean bezala, orroaz errepikatzen zituen ikasgaiak, bazterrak airean zauzkala. Erakasle batzu etsituxeak ziren, ez jakinez zer egin pottoka hezgaiz hortarik. Abbadie superiorari aldiz manera horiek nortasun baten markak baizik etzitzaizkon eta artetan, aitzakiak aitzaki, Etxelekurat igortzen zuen sort-herriko airearen hartzerat. Emeki emeki Joastipik semenarioko arak hartu zituen eta bere eskolako lehena jalgi ikasgai guzietan.

Gehientasun hortaz ez zen batere hartua, eta lagunak ez zitzaizkon aihertzen: denekin adiskide, nor nahirekin ari zen jostatzen ala pilotan, ala musean, eta superiorak nahiantak galdatzen zituelarik lur laneko, hura ere hor zuten, haintzurra eskuan, beti alegera.

Egun batez superiorak erran zion Saint Pierre gazteari: “*Beltxiño!* (izen goiti hori emana zion) nahi nauka hargintzan lagundu?”.

“—Bai gogotik, Jauna!

“—Milesker! Habil tresnategirat, hor atxemanen dituk eskorgak, pala, gisua, hots! mortero egiteko guziak. Ni banioak etxe gibelesko murr hartarat.”

Beltxiño badoa tresnategirat, zaku batetarik ixurtzen du eskorgetarat saka ahal gisu, pala emaiten du gainetik eta superioraren ganat eremaiten du guzia. Abbadie jaunaren harritzea!

“—Bainan, mutikoa, hori duka morteroa? Gisu idorrak neholaz ere ez ditik murruko harriak elgarri lotuko. Habil gisu horren ureztatza!”.

Mutikoa jua da eta gisua urez itotzen du, ahia bezalako zerbait baitu eskorgetan. Berriz hona non mutikoa heldu den nagusiaren ganat. Hurbiltzen zaio eta alegia urrats faltsu bat eginik, uzkaillten dio talasta bat mortero zangoetarat.

Gizonak erraiten dio garrazki: “Ehuena kasu emaiten ahal?” Eta badoa ahurtara bat belarrekin bere eskalapoinen xukatzerat.

Itzultzean hor du aprendiza, burua apal, iduri urrikitua, eta erraiten dio

“—Kontent nuk: ikusten diat ihaurrek ikusten dukala zenbatetaraino ergel haizan!”.

Saint Pierre-k berak kondatua daut ixtorioxka hori.

18 urtetan bakalorea airez-aire iragan zuen eta semenarioko ikasle hoberenaren saria ukan zuen.

1902 ko udazkenean sartu zen Baionako apezgaitegi handian, eta erretasun handirekin jarraiki horko ikas-ekai guziri.

1906 ean, prefetaren manuz batallun bat soldado etorri ziren Baionako Semenari handirat eta fueratu zituzten apezgai guziak. Gobernuua jabetu zen etxeaz eta hari zatxizkon lurrez.

Jaun apezpikuak Saint Pierre igorri zuen Tolosarat grado baten biltzerat: zortzi hilabeteren buruan letrazko lizentzia sakelan zuen, Unibertsitateak emanik.

1908 ko irailaren 13 an apeztua izan zen Baionako apezpikuaren kaperan eta ari izan zen Erroman teologiaren sakontzen. Bi urterik barne lizentziadura eta doktorgoa bildu zituen.

1910 ean, Erromatik lekora, Baiona ttipiko bikario izendatua da eta hasten da apez lanetan, kartsu kartsua, kateximaz eta gaztez arta hartzen duela eta, bere lehen predikuez jendea loriatzen duela.

1912 ko uztailean huna non misionest kargua emaiten zaion. Apeztegi-tan ekartzen du amore ona eta girixtinoek ez dute aski ahorik haren euskaraz-ko predikuen goresteko. Harekin kofesatzen direnek aipatu dute haren konseiluen zuhurtzia.

1914 ko otsailaren 20 ean, Nay-ko Seminario handirat deitua da, morala erakasle eta apezgaien kontseilari. Denbora berean haren gain daude predikatzen erakastea eta soziologi-auzien berri emaita. Apezgaiak alegerratu ziren aire fresko bat ekartzen ziotela.

Zorigaitzez, agorril hastean, gerla handia piztu zen, eta gure apezari behartu zitzaion armadako eriketari bilakatzea, kolpatuen biltzeko eta hospitalerarat eremaiteko. Gudukariekin bizi zen lanjer handian, bi aldiz tiroz zaurtua izan zen, eta aita familiako baten orde joan zen behin, etsaien lerroeri hurbil, lagun sastakatu batzuen bila, Alemanen xixpek debekatu nahi zutelarik. Aipamen ederrak egin ziozkaten aintzindari frantsesek eta gerlako kuru-zea ere eman.

Hiriart-Urruty kalonje famatuak otoizturik, Saint Pierre orduan hasi zen Baionako *Eskualduna* izeneko astekariaren berriketari bezala, euskaraz izkiri-riatzen. Ene gostuko, gudu lekuetarik igortzen zituen artikuluen bilduma ez da haren obretarik mendrena. Hartze luke ikertze berezi bat.

1918 ko martxoaren 28 an Saint Pierre serjanta, Montdidier hiriari hurbil, berriz ere kolpatua izan zen eta Alemanek presoner hartu zuten. Eritegi batean atera zioten aztalgainean sartua zitzaion bala eta apezgai presoneren buruzagi eman zuten Limburg-en. Hor irakurri zituen lehen aldikotz Schuchardt-en euskal ixtudioak.

1918 ko azaroaren 11 an, Alemanek amor eman bezain laster, presone-  
rek beren kurutze eta medailak prestatu ziozkaten Saint Pierre serjantari eta, papoa xingola horietaz apaindurik, Limburg-eko aitzindari aleman lehenari joan zitzaion trein bat galdeginez, Frantziarat lehen —bai— lehen sartzeko. Ardietsi zuen eta Limburg-aldean ziren presonerak berehala beren etxetarat itzuli ziren.

Baionako apezpikuak ideki-arazi zuen bere hirian eraikia zuen Semenario berria eta Saint Pierre harat bildu zen 1919 ko Bazko biharamunean.

Nik han ezagutu dut eta harek sustatu ninduen euskararen ikasterat, orduan eta geroztik ere; eskerrik handienak zor baitauzkiot. Nitaz bertze apezgai hainitz akulatu zituen euskaraz izkiriaterat, hala nola Leon, Arotzarena, Picochet, Lompageu, Landetxeberri, Aranart, Soubelet, Gréciet, Lanouguère eta abar...

Berak ere, bere teologo lanen artetik ez zuen euskalzale lana bazterten. Euskaldunen historia euskaraz nahi zuen izkiriatu eta hortarako ekaiak biltzen ari zituen. Aire hartzerat ortzegunetan gidatzen gintuelarik aipatzen zauzkun bere aurkiberriak eta loriaturik beha gindauzkion.

Zorigaitzez Jaun apezpikuak kendu zaukun eta diosesari buruzko zerna-hi karguz ito zuen, *Eskualduna* kazeta ere haren gain utzia izan baitzen 1925 ean.

1929 an Frantzia guziko *Eukaristiaren Biltzarra* egin baitzen Baionan, hura zuten ezarri oren kudeatzaile eta berriketari. Hain ederki ereman zuen bere lana, non Mgr Lemaître Kartago-ko artxapezpikuak galdatu baitzuen bere apezpiku laguntzat.

Ondoko udaberrian Erromatik jin zitzaion Baionako apezpikuari gutun bat, erran zezon sekretuki Saint Pierre kalonjeari laster izanen zela apezpiku izendatua.

Mgr Gieure-k Saint Pierre gaizoari komisionea egin zionean, hau zuri-zuria jarri zen eta atera zituen lehen hitzak hauk izan ziren: “*Kaka zaharra! Je ne suis pas fait du tout pour cela, Monseigneur!*”. Apezpikuak ihardetsi zion: “*Ne vous fâchez pas, mon ami! Après tout, ce n’est pas un deshonneur d’être évêque!...*” Zer nahi den, 1930 eko ekainaren 5 ean, Baionan, handie-nean, apezpiku ordenatu izan zen eta Kartago-rat joan. Hiruzpalau urteren buruan artxapezpikua hoztu zitzaion eta ez zion lanik kasik deus emaiten.

Handik permisionez jin zitzaikun batez ez zaukun deus holakorik salatu. Salbu oroit naiz gutarik batek erran ziola: “*Akituxea iduri duzu, Jauna: Sirocco haize hori biziki gaixtoa omen da!*”. Saint Pierrek ihardetsi zuen: “*Sirocco-a hor da, Zaharra ere hor baita... Bego hortan!*”. Uste izan ginuen *Zahara* deitu desertuaz mintzo zela. Geroztik konprenitu dugu nor zitaken, gogoan zuen *Zaharra*.

Azkenean gauzak hainbertzetaraino gaizkondu zitzaizkoten, non Mgr Lemaître-k jakinarazi baitzuen Erromarat ez zuela Saint Pierre-n beharrik.

Zer gertatu zen bada? Badakikezue apezpiku bakotzak hiru urtetarik igorri behar duela Erromarat bere diosesako gorabeheren berri? Mgr Lemaître-k *gorak* aipatzen zituen goraki eta *beherak* ahanzten. Erroman denak jakin nahi-eta, Saint Pierre-ri galde egin zioten zerbait garbitasun eta hunek “*arrosekin*” batean “*arrantzak*” ere aipatu. Erroman Artxapezpikuak ukan zituen erasietarik aise asmatu zuen nor ukan zuten *beheren* argitzailea.

Hain xuxen orduan berean Nancy-ko apezpikua hil baitzen, Erroma-tik hiru apezpiku-gaien izenak igorri ziozkaten Frantziako presidentari, hirueta-rik zoin zuen nahiago. Saint Pierre hiruetan zen eta presidentak hura zuen hautatu. Hemengo deputatu batek sekretu hori ikasirik, berria hedatu zuen eta Erroman ez dute nahi sekreturik sala dadin: horra gure Saint Pierre apezpikutegirik gabe.

Bere biziko azken 14 urteak frango trixteki ereman ditu: titulu eder bat karreatzen zuen bainan araberan bizitzekorik ez, meza-sariez kanpo. Arima on batzuek laguntzen zuten. Erretreta zenbait, predikuak galdatzen ziozkaten besta handientzat. Berak ez zuen deusik galdatzen, ez zen pleinitzen. Ez zen den gutienik etsitua. Zerbitzu egiterat prest zen eta partikulazki euskalgoari nolako laguntza ez dio egin!: kazetetan, aldizkarietan izkiriatur, Miarritzeko Biltzarra gerizatuz, euskalzaleak akulatuz, *Herria* kazeta sortuz, *Gure Herria* piztuz, liburu berriak presentatuz, Ameriketako euskaldunak bisitatuz, hots gu guzien atsegin eta penetan parte hartuz.

Hiruetan-hogoi-ta-zazpi urtetan itzali zitzaikun Baionako serora Dominikanoetan 1951 ko abendoaren 18 an. Katedralean hil meza eder bat ukan zuen: kardinale bat, hiru apezpiku, apez eta serora hainitz, departamenduko eta bereziki Euskal Herriko zer nahi jende bazen bildurik haren ohoretan eta harentzat otoitz egiteko, esker onez.

Gero hortxe, Milafrangako eliza alarzean ehortzi dute, hain maite zuen sort herrian.

Haren itxura gogoan dut oraino. Iduri zait ikusten dutala heldu, besoak dilindan, urratsa bizi, doi bat zeiharkatuz, pilotari asko bezala, ile ta betileak zubeltx kolore, soingaina eta kopeta apalkara, larru bronzatua, begitardean trixteziatzko itzal bat bezala. Nola ahantz haren batbateko jauzia, iduri amets batetarik azartzen zela, haren besoaren luzatzea eta eskuaren hedatzea, bihoztetikako agur ozen batekin adixkideki on-hartzen zintuela?

Horra nolakoa zen ene oroitean Milafranga eta Euskal Herria hain handiki ohoratu dituen apezpiku euskalzalea.